

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko buruaren 196/2021 ebazpena, irailaren 9koa, ebazten duena Gazteriaren Foru Erakundearen giza baliabideak arrazionalizatzeko plana garatzeko lekualdatze-lehiaketa eta barne-sustapena

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 4ko 16/2021 Foru Dekretuaren bidez, Gazteriaren Foru Erakundeko langileentzako giza baliabideak arrazionalizatzeko plana onartu zen 2021ean.

2021eko ekainaren 8aren Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren ebazpen bidez giza baliabideak arrazionalizatzeko planean jasotako plazak lekualdatzeko eta barne-sustapeneko lehiaketarako deia egin zuen.

Lanpostu horiek langile finkoek betetzeko gorde dira, diruz hornituta daude aurrekontuetan eta lehiaketa bidez beteko dira, indarrean dagoen lanpostu zerrendan, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateratuko 78. eta 79. artikuluetan, eta 6/89 Legearen, Euskal Funtzio Publikoarenaren, 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Deialdia eta oinarriak ALHAOn argitaratu ziren, ekainaren 18ko alean (67. zk.), eta eskabideak aurkezteko epea hasi zen horrenbestez.

Behin beterik oinarrietan ezarritako izapideak, epaimahai kalifikatzaileek bere bilkuraren akta igorri dute, lehiaketa ebazteko proposamenarekin.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, Erakunde Autonomoko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuen deialdia eta oinarriak onartzea; bere ardura izango da, baita ere, prozedura horiek ebaztea.

Horregatik guztiagatik, ebazpen hau ematen da.

EBAZPENA

Lehena. Esleitzea deialdian eskainitako lanpostuak.

1. Onartzea epaimahai kalifikatzaileek emandako ebazpen proposamena, eta behin betiko esleitzea ebazpen honen eranskinean aipatzen diren lanpostuak eranskinean bertan zehazten den lan kontratu finkoko langileei.

2. Esleitutako destinoari ezin zaio uko egin, non eta ez den lortu beste destino bat deialdi publiko baten bidez; kasu horretan, interesatuak eurek egin beharko du aukera, lanpostua uzteko ezarritako eguna baino lehen, lanpostu bataren edo bestearen alde, eta idatziz jakinarazi beharko dio egin duen aukera Gazteriaren Foru Erakundeari, hiru egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratzen denetik kontaktzen hasita.

Bigarrena. Lanpostua uzteko eta jabetzan hartzeko epeak.

1. Lan-kontratuko langile finkoek aurreko destinoan lanpostua uzteko, eranskinean adierazitakoa bete beharko da. Amortizatu beharreko lanpostuen kasuan, lanpostu-zerrendaren aldaketa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean utziko da lanpostua.

2. Lanpostuaz jabetzea administrazio ondorioak eraginez, aurreko destinoko lanpostuari uko egin eta hurrengo egunean formalizatu beharko da, non eta ez dakarren berekin jarduneko zerbitzura itzultzea, zeren eta, hartara, lehengo destinoko lanpostua utzi eta hilabete bateko epean formalizatu beharko da lanpostuaz jabetzea.


3. Lanpostu berrian egiaz hasteko epea hiru egun baliodunekoa izango da, lehengo lanpostua uzten denetik kontaktzen hasita, non eta ez dakarren berekin langileak bizitokia aldatu beharra; edo, bestela, bizitokia aldatzea badakar, hilabete epean, baina, orduan, fede emateko eran egiaztatu beharko du bizitoki aldaketa. Ebazpenak berekin badakar jarduneko zerbitzura itzuli beharra, lanpostu berrian egiaz hasteko eguna lanpostuaz jabetzen den eguna bera izan beharko da.

4. Lanpostuaz jabetzeko epeak kontaktzen hasiko dira interesatuei eman zaizkien baimen edo lizentziak amaitutakoan, salbu eta erditzeagatik edo amatasun edo aitatasunagatik eta adopzioagatik edo familia harreragatik eman diren baimenen kasuetan; horiei apirilaren 12ko 7/2007 Legearen, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren, 49. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabete epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, hilabete epean. Hain zuzen, hala egin ahal izango da bat etorritik uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 123. artikuluekin eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearen 123. artikuluekin.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 10a

Kultura eta Kirol diputatua
ANA MARIA DEL VAL SANCHO



ERANSKINA / ANEXO

ESLEITUTAKO LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA
LISTADO DEFINITIVO DE PUESTOS ADJUDICADOS

LANPOSTUA PLAZA	LANPOSTUA PUESTO	Kontratazio erregimena Régimen Contratación	Izen-Abizenak Nombre y Apellidos	Lanpostuaz jabetzeko data Fecha de Toma de posesión
22 01 73	Gazteriako Administrazioa Administrativo/a de Juventud	Lan-kontratu finko jarraitua Laboral Fijo Continuo	Arantza Alvarez Fdez. de Mendia	Lanpostuen zerrendaren aldaketa ALHAOn noiz argitaratu den Fecha de publicación en el BOTHA de la modificación de la RPT
22 02 74				
15 04 76	Txalupataria / Barquero		Enrique Esnal Sarriegui	Lanpostuen zerrendaren aldaketa ALHAOn noiz argitaratu den Fecha de publicación en el BOTHA de la modificación de la RPT
23 01 75	Kirol Jardueretan Koordinatzailea / Coordinador/a de Actividades Deportivas	Aldizkako Lan-kontratu Finkoa Laboral Fijo Discontinuo	Iñigo Fernández Gaztañaga	Lanpostuen zerrendaren aldaketa ALHAOn noiz argitaratu den Fecha de publicación en el BOTHA de la modificación de la RPT
11 09 38	Garbiketako eta Zerbitzuetaiko Espezialista Especialista de Limpieza y Servicios	Lan-kontratu finko jarraitua Laboral Fijo Continuo	Miren Josune Aranzabal Olave	2021eko urriaren 1a 1 de octubre de 2021